

PINTURA LEHIAKETA

Concurso de pintura

2026

ZUMARRAGA- URRETXU

Janak aurkezteko epea: Irailak 1-19
Plazo de presentación de trabajos: 1-19 septiembre

Oinarriak — Bases



ZUMARRAGAKO
UDALA



Urretxuko udala

**URRETXU eta ZUMARRAGAKO
XXXI. PINTURA LEHIAKETA 2026**

OINARRIAK

- 1.- PARTAIDEAK:** Nahi duten guztiek hartu ahal izango dute parte lehiaketa honetan.
- 2.- GAIA ETA TEKNIKA:** Lanaren gaia eta egiteko modua egilearen aukeran egongo dira.
- 3.- LANAK:** Egile bakoitzak **bi lan** aurkeztu ahal izango du gehienez. Behin lanak aurkeztu eta gero ezingo dira jaso Epaimahaiak bere erabakia hartu arte.
- 4.- FORMATUA:** Pintura lanen neurria gehienez 130 x 97 cm-koa izango da, **beti ere euskarri gogorrean.**
- 5.- IDENTIFIKAZIOA:** Lanak egilea nor den adieraz dezakeen inolako daturik gabe aurkeztuko dira (ez dira onartuko sinatuta datozenak), atzealdean lanaren lema adieraziz. Lanarekin batera eta kartazal itxi batean egilearen datu guztiak, telefono zenbakia, helbide elektronikoa (baldin eta erabiltzen bada), N.A.ren fotokopia eta lema adieraziko dira. Kanpoaldean berriro azalduko da lema hori.
- 6.- AURKEZPENA:** Lanak eskuan ekarri nahiz postaz bidaliko dira, **2026ko irailaren 1etik 19ra, ASTELEHENETIK OSTIRALERA 10:00-13:00 / 15:00-20:30 ETA LARUNBATETAN 10:00-13:00**, honako helbide honetara:
* Zelai Arizti kultur etxea.- XXXI. Pintura Lehiaketa.- Legazpi kalea, 7 - 20.700 ZUMARRAGA
- 7.- SARIAK:** Honako sari hauek banatuko dira:
 1. saria : 897,65 € (*)
 2. saria : 740,74 € (*)Herriko lan onenari: 370,37 € (*)
(*) Saria/dieta %19ko PFEZren atxikipenari lotuta dago
 - Saria eskuratzeko ezinbestekoa izango da zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean izatea. Lehiaketa kudeatzen duen organoak egingo du egiaztapena, eta, horretarako, aipatutako datuak zuzenean bilduko ditu datu horiek igortzen dituzten erakundeetatik. Hori ezinezkoa bada edo irabazleak egiaztapenari uko egiten badio, berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak. Era berean, lortutako sariaren ordainketa-kontuaren titulartasuna egiaztatu beharko du.
- 8.- Sariak eman gabe utz daitezke, Epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek behar duten kalitaterik ez badute.**
- 9.- EPAIMAHAIA:** Epaimahaia antolatzaileek izendatuko dute eta bere erabakia aldaezina izango da.
- 10.- ERABAKIA HARTZEA:** Epaimahaiaren **erabakia sari banaketaren egunean jakinaraziko da, urriaren 8an, osteguna, Zelai Arizti erakusketa aretoan, 18,00etan.** Bi udaletako web orritan ere azalduko da. www.urretxu.eus / www.zumarraga.eus / www.zelaiarizti.eus
- 11.- SARITUTAKO LANAK:** Saritutako lanak antolatzaileen esku geratuko dira, eta argitaratu edo erakusteko eskubidea izango dute, beti ere egilearen izena aipatuz.
- 12.- ERAKUSKETA:** Aurkeztutako lanak edo hauen artean Epaimahaiak aukeratzen dituenak **urriaren 8tik 17ra** erakutsiko dira, Zumarragako Zelai Arizti erakusketa aretoan.
- 13.- LANAK JASOTZEKO EPEA:** Saritu gabeko lanak jasotzeko epea **urriaren 20tik 31ra** izango da, Zelai Arizti kultur etxean.
- 14.-** Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek guztiz onartzea dakar berekin. Oinarri hauetan agertu gabeko edozein ustekabetan antolatzaileek hartuko dute erabakia. Lanak ondo zaintzeko ahaleginak egingo dira; dena den, antolatzaileen errurik gabe lanen batek okerrik izanez gero, antolatzaileek ez dute horren erantzukizunik hartuko.

XXXI CONCURSO DE PINTURA URRETXU y ZUMARRAGA 2026

B A S E S

- 1.- PARTICIPANTES:** Podrán participar en este concurso todas y todos los artistas que lo deseen.
- 2.- TEMA Y TÉCNICA:** El tema de la obra y el procedimiento a realizar serán de libre elección del autor/a.
- 3.- OBRAS:** Cada artista podrá concurrir con un máximo de dos obras. Una vez presentados los trabajos éstos no podrán ser retirados hasta que el Jurado emita el fallo.
- 4.- FORMATO:** El tamaño de las obras pictóricas será, como máximo, 130 x 97 cms., siempre presentada en soporte rígido.
- 5.- IDENTIFICACIÓN:** Las obras deberán presentarse sin ningún tipo de identificación de su autor/a (no se admitirán los que lleguen firmados), pero haciendo constar al dorso del cuadro el lema. Acompañando a la obra y en sobre cerrado se enviarán los datos completos del/a autor/a, número de teléfono, dirección de correo electrónico (si se utiliza), fotocopia del D.N.I. y lema de la obra, especificando éste nuevamente en el exterior del sobre.
- 6.- ADMISIÓN:** Las obras se entregarán en mano o bien por correo entre el 1 y el 19 de septiembre de 2026 DE LUNES A VIERNES 10:00-13:00 / 15:00-20:30, Y SABADOS DE 10:00 A 13:00, en la siguiente dirección
* Casa de cultura Zelai Arizti .- XXXI Concurso de Pintura.- Legazpi kalea, 7 - 20.700 ZUMARRAGA
- 7.- PREMIOS:** Se establecen los siguientes premios:
1er. premio: 897,65 € (*)
2º premio: 740,74 € (*)
Mejor trabajo local: 370,37 € (*)
(*) Premio sujeto a la correspondiente retención de IRPF (19%)
Para obtener el premio será necesario estar al corriente de las obligaciones tributarias y las referidas a la Seguridad Social. La verificación será efectuada por el órgano gestor del concurso, que recabará los citados datos directamente de los organismos emisores de los mismos. Si esto no fuera posible o la persona ganadora renunciara a dicha verificación, deberá presentar los correspondientes certificados. Deberá asimismo acreditar la titularidad de la cuenta de abono del premio conseguido.
- 8.-** Los premios podrán declararse desiertos si a juicio del Jurado las obras no reúnen la suficiente calidad.
- 9.- JURADO:** El Jurado será designado por la organización y su fallo será inapelable.
- 10.- FALLO:** El fallo del Jurado se dará a conocer el día de la entrega de premios, que se realizará el 8 de octubre, jueves, a las 18:00 horas en la sala de exposiciones Zelai Arizti de Zumarraga. Así mismo se publicará en la página web de ambos ayuntamientos. www.urretxu.eus / www.zumarraga.eus / www.zelaiarizti.eus
- 11.- TRABAJOS PREMIADOS:** Las obras premiadas quedarán en poder de la organización, reservándose ésta el derecho a su publicación o exhibición, citándose en todo caso el nombre del autor/a.
- 12.- EXPOSICIÓN:** Los trabajos presentados o una selección de los mismos realizada por el Jurado serán expuestos del 8 al 17 de octubre en la sala de exposiciones Zelai Arizti de Zumarraga.
- 13.- PLAZO DE RECOGIDA DE LAS OBRAS:** El plazo de recogida de las obras no premiadas será del 20 al 31 de octubre en la casa de cultura Zelai Arizti de Zumarraga.
- 14.-** El hecho de concurrir a este concurso supone la plena aceptación de las presentes bases. Cualquier incidencia surgida no reflejada en las mismas será resuelta por la organización. Se cuidará de la buena conservación de las obras, rehusando, no obstante, toda responsabilidad si por causas ajenas a la organización sufrieran algún daño.